2.Utilizará los datos personales, única y exclusivamente, para la realización del objeto del contrato.

3. Ez die inolako datu pertsonalik eman edo erraztuko hirugarrenei. Horretarako, kontratistak datu horiek edo haiekin sortutako fitxategiak ez transferitzeko, lagatzeko edo jakinarazteko konpromisoa hartzen du, ez ahoz, ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paperean, ez sarbide informatikoaren bidez, ezta ikusteko ere

3.No facilitará ningún dato personal a terceras personas. A tal efecto, la parte contratista se compromete a no revelar, transferir, ceder o comunicar dichos datos o los ficheros creados con ellos, ya sea verbalmente o por escrito, por medios electrónicos, papel o mediante acceso informático, ni siquiera para su visualización, a terceras personas.

4. Zerbitzua edo jarduera hasi baino lehen, datu pertsonaletara sarbidea duten langile guztien zerrenda bat eman beharko dio kontratuaren arduradunari, eginkizunak eta lana non egingo duten adierazita. Kontratua gauzatzen den bitartean beste pertsona batzuk jardueran parte hartu behar ezkero, beste zerrenda bat erraztuko du, hori gertatzen denetik gehienez ere astebeteko epean. Bai kontratistak, bai zerrenda horietan agertzen diren langile guztiek, formalki eta idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordetzeko konpromisoa hartu beharko dute

4.Entregar a la persona responsable del contrato antes del inicio de los trabajos una relación de todo el personal que tenga acceso a los datos de carácter personal con funciones y lugar donde van a desarrollar el trabajo. Si durante la ejecución del contrato fuera necesario incorporar a otras personas entregará una nueva relación en un plazo máximo de una semana desde que sucediera este hecho. Tanto la parte contratista como todo el personal que figure en estas relaciones deberá comprometerse formalmente por escrito a mantener el secreto profesional con respecto a los datos tratados.

5. Kontratuaren arduradunak, kontrolak egin ahal izango ditu kontratuaren exekuzioan, segurtasun-neurriak betetzen direla egiaztatzeko, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaile egokiak hartu ahal izango ditu ere

5.La persona responsable del contrato puede realizar controles durante la ejecución para verificar el cumplimiento de las medidas de seguridad y puede adoptar, en su caso, las medidas correctoras oportunas.

b) Tratamenduaren Eragilearen betebeharrak

Prestazioaren izaeratik ondorioztatzen bada esleipendunak Ordiziako Udalaren kontura datuak tratatzeko aukera izango duela, tratamendu eragilearen kontratua gauzatu beharko da nahitaez. Kontratu horretan, adostasuna emango zaie esleipendunak, tratamenduaren arduradun den aldetik, dituen betebeharrei, eta betebehar horien funtsezko izaera deklaratuko da kontratu honen ondorioetarako. Era berean, esleipendunak tratamendu eragilearen kontratuan bertan zehazten den moduan tratatu beharko ditu Ordiziako Udalaren datu pertsonalak.

Ordiziako Udalak, kontratua gauzatzen den bitartean, egokitzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko, hauen ez betetzeak suntsiarazteko arrazoi izaera izanik. Horretarako, Ordiziako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango ditu datuen tratamenduetan arriskuari egokitutako segurtasun-maila bermatzeko ezarritako neurri tekniko eta antolakuntzakoen arrisku analisia. Orobat, neurri horiek dagokion zigilu, ziurtagiri edo estandarraren bidez egiaztatu ahal izango dira.

b) Obligaciones de la persona Encargada del Tratamiento

Cuando de la naturaleza de la prestación se desprenda la posibilidad de que la parte adjudicataria realice tratamiento de datos por cuenta del Ayuntamiento de Ordizia, resultará preceptiva la cumplimentación del correspondiente contrato de persona encargada del tratamiento en el que se prestará conformidad a las distintas obligaciones de la parte adjudicataria en su condición de Encargado/a del Tratamiento, de las cuales se declaran a los efectos de este contrato su carácter esencial. Asimismo, la parte adjudicataria deberá tratar los datos personales de los que el Ayuntamiento de Ordiziako es Responsable del Tratamiento de la manera que se especifica en el propio contrato de encargado/a del tratamiento.

El Ayuntamiento de Ordiziako, durante la ejecución del contrato podrá efectuar cuantas comprobaciones considere adecuadas al objeto de verificar el cumplimiento de las antedichas obligaciones, constituyendo causa de resolución su incumplimiento. A estos efectos el Ayuntamiento de Ordizia podrá recabar en cualquier momento el correspondiente análisis de riesgo de las medidas técnicas y organizativas implantadas para garantizar el nivel de seguridad adecuado al riesgo en los tratamientos de datos. Dichas medidas podrán ser acreditadas alternativamente por el correspondiente sello, certificación o estándar.

Bosgarren atala. Aseguruak eta kalteen gaineko erantzukizunak

40. klausula. Aseguruak.

Kontratistak plegu honen **I. eranskineko 17. idatz-zatian** adierazten diren aseguru-polizak sinatu behar ditu, haren ardurapean eta idatz-zati horretan ezarritako kontzeptu, zenbateko, estaldura, iraupen eta baldintzekin.

Sección quinta. De los seguros y responsabilidades por daños

Cláusula 40. Seguros.

El contratista, estará obligado a suscribir, a su cargo, las pólizas de seguros que se indican en el **apartado 17 del Anexo I** al presente pliego, por los conceptos, cuantías, coberturas, duración y condiciones que se establecen en el mismo.

41. artikulua. Kontratistaren erantzukizunak kalte-galerengatik.

SPKLren 196. artikuluan xedatzen da kalte-galerak ordaintzeko araubidea. Horren arabera, kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren jardueren ondorioz hirugarrenek zuzenean edo zeharka jasan ditzaketen kalte-galerak. Kalte-galerak Administrazioak emandako agindu baten ondorio zuzena eta berehalakoa direnean, Administrazioa izango da kalte-galera horien erantzule, legeak ezarritako mugen barruan. Era berean, Administrazioa izango da hirugarrenei eragindako kalteen erantzule, baldin eta Administrazioak berak egindako proiektuko akatsen ondorioz gertatu badira, baina aukera dago proiektua idatzi duenari erreklamatzeko, SPKLren 315. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Kontratistak kontratuaren xede diren prestazioak oker egikaritzeagatik hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra betetzen ez badu, administrazioak plegu honen **I. eranskineko 29. idatz-zatian** zehazten diren zehapenak ezarriko dizkio.

Cláusula 41. Responsabilidad del contratista por daños y perjuicios.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 196 LCSP, el contratista será responsable de todos los daños y perjuicios directos e indirectos que se causen a terceros como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato. Si los daños y perjuicios ocasionados fueran consecuencia inmediata y directa de una orden dada por la Administración, ésta será responsable dentro de los límites señalados en las leyes. También será la Administración responsable de los daños que se causen a terceros como consecuencia de los vicios del proyecto elaborado por ella misma, sin perjuicio de la posibilidad de repetir contra el redactor del proyecto de acuerdo con lo establecido en el artículo 315 de la LCSP.

En caso de incumplimiento por parte del contratista de la obligación de indemnizar los daños y perjuicios ocasionados a terceros como consecuencia de la incorrecta ejecución de las prestaciones objeto del contrato, la Administración procederá a la imposición de las penalidades que se determinen en el **apartado 29 del Anexo I** al presente pliego.

II. KAPITULUA. Lagapena eta azpikontratazioa.

CAPÍTULO II. De la cesión y subcontratación.

42. klausula. Kontratua lagatzea.

Adjudikaziodunak kontratu honetatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga diezazkioke, salbu eta kontratua adjudikatzeko arrazoi nagusia lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak izan badira, SPKLren 214.2 artikuluan ezarritako ustezkoak eta baldintzak betetzen badira eta lagapen horren ondorioz merkatuan lehia murrizten ez bada. SPKLren 214. artikuluaren 2 ataleko b) letran ezarritakoa alde batera utzita, ezingo zaio hirugarren bati lagapenik egin, lagapen horrek kontratistaren ezaugarriak nabarmen aldatzen baditu eta horiek kontratuaren funtsezko elementu badira.

Kontratua lagatzeko aukerari dagokionez, plegu honen **I. eranskineko 26. idatz-zatian** jasotakoari

Cláusula 42. Cesión del contrato.

Los derechos y obligaciones dimanantes del presente contrato podrán ser cedidos por el adjudicatario a un tercero siempre que las cualidades técnicas o personales del cedente no hayan sido razón determinante de la adjudicación del contrato, se cumplan los supuestos y los requisitos establecidos en el artículo 214.2 LCSP, y de la cesión no resulte una restricción efectiva de la competencia en el mercado. Sin perjuicio de lo establecido en el apartado 2, letra b) del artículo 214 LCSP, no podrá autorizarse la cesión a un tercero cuando ésta suponga una alteración sustancial de las características del contratista si éstas constituyen un elemento esencial del contrato.

En relación con la posibilidad de cesión del contrato habrá que estar a lo establecido en el **apartado 26**

men egin beharko zaio.

del Anexo I al pliego.

43. klausula. Azpikontratazioa.

Kontratistak, plegu honen **I. eranskinaren 25. idatz-zatian** aurreikusitakoa betez, hirugarrenekin ados dezake kontratua partzialki burutzea, salbu eta, SPKLren 215. artikuluaren 2. idatz-zatiko d) eta e) letretan ezarritakoaren arabera, kontratuaren prestazioa edo prestazioaren zati bat kontratistak zuzenean egikaritu behar ez badu, eta baldin eta SPKLren 215. artikuluaren 2. idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen badira.

Baldintza horiek betetzen ez badira, azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzen ez bada edo larrialdi-egoeraren edo azpikontratatzea premiazkoa egiten duten baldintza erabakigarriak azaltzen ez badira, ondorio hauek sortuko dira, SPKLn aurreikusitakoez aparte eta kontratuaren egikaritzean izan duten eraginaren arabera:

a) Kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren % 50rainoko zehapena ezartzea, plegu honen **I. eranskineko 29. idatz-zatian** xedatutakoaren arabera.

b) Kontratua amaitzea, betiere SPKLren 211. artikuluaren 1. idatz-zatiko f) letraren bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Halaber, azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzeari dagokionez, SPKLren 216. eta 217. artikuluetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak bete beharko ditu.

Edonola ere, azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean bakarrik erantzun beharko dute. Ondorioz, kontratista izango da kontratua egikaritzearen erantzule bakarra administrazioaren aurrean, eta administrazio-klausula berezien plegua eta kontratuaren baldintzak zorrozki betetzeaz gainera, SPKLren 201. artikuluan ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloan jasotzen diren betebeharrak bete beharko ditu.

Azpikontratistak ezingo dira administrazio kontratatzailearen aurrean zuzenean aritu, kontratistak administrazioarekin kontratu nagusiaren

Cláusula 43. Subcontratación.

El contratista, según lo previsto en el **apartado 25 del Anexo I** al presente pliego, podrá concertar con terceros la realización parcial del mismo, salvo que conforme a lo establecido en las letras d) y e) del apartado 2º del artículo 215 LCSP, la prestación o parte de la misma haya de ser ejecutada directamente por el contratista y siempre que se cumplan los requisitos establecidos en el apartado 2 del artículo 215 LCSP.

La infracción de estas condiciones, así como la falta de acreditación de la aptitud del subcontratista o de las circunstancias determinantes de la situación de emergencia o de las que hacen urgente la subcontratación, tendrá, entre otras previstas en la LCSP, y en función de la repercusión en la ejecución del contrato, alguna de las siguientes consecuencias:

a) La imposición al contratista de una penalidad de hasta un 50% del importe del subcontrato, según lo establecido en el **apartado 29 del Anexo I** al presente pliego

b) La resolución del contrato, siempre y cuando se cumplan los requisitos establecidos en el segundo párrafo de la letra f) del apartado 1 del artículo 211 LCSP.

Asimismo, y en cuanto a los pagos a subcontratistas y suministradores, quedará obligado al cumplimiento de los requisitos y obligaciones establecidos en los artículos 216 y 217 LCSP.

En todo caso, los subcontratistas quedarán obligados sólo ante el contratista principal que asumirá, por tanto, la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente a la Administración, con arreglo estricto a los pliegos de cláusulas administrativas particulares, y a los términos del contrato, incluido el cumplimiento de las obligaciones en materia medioambiental, social o laboral a que se refiere el artículo 201 LCSP.

Los subcontratistas no tendrán acción directa frente a la Administración contratante por las obligaciones contraídas con ellos por el contratista como

eta azpikontratuen egikaritzearen ondorioz dituen betebeharrei dagokienez.

consecuencia de la ejecución del contrato principal y de los subcontratos.

Kontratistak, kontratua adjudikatu ostean eta beranduenez, kontratua egikaritzen hastean, kontratazio-organoari idatziz jakinarazi beharko dio asmoa duela azpikontratuak egiteko, zer zati azpikontratatu nahi duen eta baita azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta legezko ordezkariak ere. Halaber, azpikontratistaren gaitasuna justifikatu beharko du, eta hark dituen elementu teknikoak eta giza baliabideak eta esperientzia adieraziko ditu horretarako.

El contratista deberá comunicar por escrito, tras la adjudicación del contrato y, a más tardar, cuando inicie la ejecución de éste, al órgano de contratación su intención de celebrar subcontratos, señalando la parte de la prestación que se pretende subcontratar y la identidad, datos de contacto y representante o representantes legales del subcontratista, y justificándolo suficientemente la aptitud de éste para ejecutarla por referencia a los elementos técnicos y humanos de que dispone y a su experiencia.

Kontratistak, orobat, azpikontratuaren berri emateko idazkiarekin batera, egiaztatu beharko du azpikontratistak kontratuak egiteko debekurik ez duela, SPKLren 71. artikuluari jarraikiz. Azpikontratatzailearen erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egin dezake hori.

Asimismo, junto con el escrito mediante el que se dé conocimiento a la Administración del subcontrato a celebrar, el contratista deberá acreditar que el subcontratista no se encuentra incurso en prohibición de contratar de acuerdo con el artículo 71 LCSP. Dicha acreditación podrá hacerse efectiva mediante declaración responsable del subcontratista.

Kontratista nagusiak kontratazio-organoari idatziz jakinarazi behar dio informazio horretan kontratu nagusia egikaritu bitartean izandako edozein aldaketa, eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia eman.

El contratista principal deberá notificar por escrito al órgano de contratación cualquier modificación que sufra esta información durante la ejecución del contrato principal, y toda la información necesaria sobre los nuevos subcontratistas.

Kontratistak azpikontratazioaren langile-ordezkariak jakinaren gainean jarriko ditu, laneko legeria betez.

El contratista deberá informar a los representantes de los trabajadores de la subcontratación, de acuerdo con la legislación laboral.

I. eranskineko 25. idatz-zatian horrela eskatzen bada, lizitatzaileek beren eskaintzan datu hauek jasota utzi behar dituzte: azpikontratatuko duen kontratuaren zatia, zenbatekoa, eta enpresaren izena edo profila, eta lan hori burutuko duten azpikontratisten kaudimen profesionala edo teknikoa. Kasu horretan, azpikontratuak eskaintzan jasotakoari egokitzen ez bazaizkio, ezingo dira gauzatu aurreko paragrafoan aipatzen den jakinarazpena egin eta justifikazioak ematen direnetik hogei egun igarotzen diren arte, aurretiaz administrazioaren baimen espresik edo larrialdi-egoera justifikaturik izan ezean, eta administrazioak epe horretan aurka dagoela jakinarazten ez badu.

Si así se requiere en el **apartado 25 del Anexo I**, los licitadores deberán indicar en su oferta la parte del contrato que tengan previsto subcontratar, señalando su importe, y el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica, de los subcontratistas a los que vaya a encomendar su realización. En este caso, si los subcontratos no se ajustan a lo indicado en la oferta, no podrán celebrarse hasta que transcurran veinte días desde que efectúen la notificación y aportación de las justificaciones referidas en el párrafo anterior, salvo autorización expresa con anterioridad por la Administración o situación de emergencia justificada, excepto si la Administración notifica en ese plazo su oposición.

SPKLren 217.1 artikulua betez, kontratistak,

De conformidad con el artículo 217.1 LCSP, el

kontratazio-organoak hala eskatzen badu, kontratuan parte hartuko duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda bidali beharko du, haien parte-hartzea burutzen den unean. Zerrenda horrekin batera, ordainketa-epearekin lotura zuzena dutenen azpikontratazio- edo hornikuntza-baldintzak ere bidaliko dizkio. Horrez gain, administrazioak hala eskatuta, prestazioa amaitzean ordainketa horiek egiaztatu beharko ditu, SPKLren 216. artikuluan eta merkataritza-eragiketetan berankortasunari aurka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 legean ordainketak egiteko legez ezartzen diren epeen barruan, aplikagarri zaizkion gaietan. Betebehar horiek kontratua egikaritzeko funtsezko baldintzatzat hartuko dira, eta, horiek ez betetzeak, araubide juridikoan aurreikusitako ondorioez gain, plegu honen **I. eranskineko 29. idatz-zatian** aurreikusten diren zehapenak sortuko ditu.

contratista deberá remitir al órgano de contratación, cuando éste lo solicite, relación detallada de aquellos subcontratistas o suministradores que participen en el contrato cuando se perfeccione su participación, junto con aquellas condiciones de subcontratación o suministro de cada uno de ellos que guarden una relación directa con el plazo de pago. Asimismo, deberán aportar a solicitud de la Administración justificante del cumplimiento de los pagos a aquellos una vez terminada la prestación, dentro de los plazos de pago legalmente establecidos en el artículo 216 LCSP y en la Ley 3/2004 de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, en lo que le sea de aplicación. Estas obligaciones tendrán la consideración de condiciones esenciales de ejecución del contrato y su incumplimiento, además de las consecuencias previstas por el ordenamiento jurídico, permitirá la imposición de las penalidades que, en su caso, se prevea en el **apartado 29 del Anexo I** al presente pliego.

.

216. eta 217. artikuluek xedatutakoa baztertu gabe, berrogeita hamaikagarren xedapen osagarrian ezarritakoa betez eta 215. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen diren guztietan, kontratazio-organoak administrazio-klausulen agirietan aurreikus dezake azpikontratistei ordainketa zuzenak egitea. Kontratu honi dagokionean, **agiriaren I. eranskineko 25. idatz-zatian** jasotakoari men egingo zaio.

De conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional quincuagésima primera, sin perjuicio de lo previsto en los artículos 216 y 217 y siempre que se cumplan las condiciones establecidas en el artículo 215, el órgano de contratación podrá prever en los pliegos de cláusulas administrativas, se realicen pagos directos a los subcontratistas. En el presente contrato se estará a lo dispuesto en el **apartado 25 del Anexo I del pliego.**

Azpikontratistari egindako ordainketak kontratista nagusiak eginikoak direla iritziko zaio, eta administrazio kontratatzaileari dagokionez, obra-ziurtagiriek duten konturako abonuaren izaera bera izango dute.

Los pagos efectuados a favor del subcontratista se entenderán realizados por cuenta del contratista principal, manteniendo en relación con la Administración contratante la misma naturaleza de abonos a buena cuenta que la de las certificaciones de obra.

Ez zaio administrazioari inolaz ere egotziko ordainketan atzeratu izena kontratista nagusia azpikontratistak aurkeztutako fakturarekin ados ez egoteagatik.

En ningún caso será imputable a la Administración el retraso en el pago derivado de la falta de conformidad del contratista principal a la factura presentada por el subcontratista.

III. KAPITULUA Arriskua eta mentura

CAPÍTULO III. Del riesgo y ventura

Lehenengo atala. Arriskua eta mentura, eta proiektuaren interpretazioaz.

Sección primera. Del riesgo y ventura e interpretación del proyecto.

44. klausula. Arriskua eta mentura.

Kontratua egikarituko da arriskua eta mendura kontratistaren gain direla, SPKLren 197. artikuluan ezarritakoarekin adostasunean.

Cláusula 44. Riesgo y ventura.

La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista, según lo dispuesto en el artículo 197 LCSP .

45. klausula. Lan programa.

Lan-programa aurkezteko betebeharra agiri honen **I. eranskineko 9.idatzi-zatian** zehaztuko da.

Kontratistak gauzatu beharreko lan –programa aurkeztuko dio kontratazio-organoari, **I. eranskineko 9. Idatz-zatian** adierazitako epean, kontratua formalizaten denetik zenbatzen hasita. Egitarau horretan, zerbitzuaren edukiari erantzuteko beharrezkotzat jotzen dituen zereginak jasoko ditu, eta, hala badagokio, zeregin bakoitzerako epe partzialak ezarri. Horretarako, astea eta hilabetea hartuko dira denbora-unitatetzat, baldintza teknikoen agirian kontrakorik adierai ezean. Lan-programak kontratuan zehaztutako emate-data edo epe guztiak errespetatuko ditu, eta agiri hartan eskatutako datu guztiak jasoko ditu.

Kontratazio-organoak erabakia hartuko du, eta aurkeztutako lan-programa aldatu, handitu edo gehiago zehaztuko du, kontratua betetzeko beharrezkoa dela jotzen badu.

Adjudikaziodunak zerbitzuak aurrera eramateko erakunde edo organismo publikoekin harremanak ezarri behar baditu, kontratazio-organoak baimena eman beharko du aurrena.

Kontratuaren baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratisktak programa eguneratu beharko du.

La obligación de presentación del programa de trabajo, se determinará en el **apartado 9 del Anexo I**.

El contratista, en el plazo que se indica en el **apartado 9 del Anexo** I, contado a partir de la formalización del contrato, habrá de someter a la aprobación del órgano de contratación correspondiente, en el programa para su realización, en el que consten las tareas que considere necesario realizar para atender el contenido del servicio proponiendo, en su caso , los plazos parciales correspondientes a cada tarea. A estos efectos, se utilizarán como unidades de tiempo la semana y el mes, salvo indicación en contrario del pliego de prescripciones técnicas. El programa del pliego de trabajo respetará todas las fechas o plazos de entrega fijados en el contrato, y contendrá todos los datos exigidos en aquel pliego.

El órgano de contratación resolverá sobre el mismo, pudiendo imponer al programa de trabajo presentado la introducción de modificaciones, ampliaciones y el grado de definición que estime necesario para el cumplimiento del contrato.

Si para el desarrollo de lso servicios se precisare establecer por el adjudicatario contactos con entidades y organismos públicos, necesitará la previa autorización del órgano de contratación.

Cada vez que se modifiquen las condiciones contractuales, el contratista queda obligado a la actualización y puesta al día del este programa.

Bigarrenn atala. Egikaritze-okerra eta atzerapena.

Sección segunda. De la ejecución defectuosa y demora

46. klausula. Lan akastunak edo gaizki burutuak.

Prestazioa jaso arte, kotnratatu diren zerbitzuak zuzen burutzen ari direla eta izan ditzaketen akatsak adjudikaziodunaren erantzunkizuna izango dira, eta administrazioaren ordezkariek zerbitzuak garatzean lanak aztertu edo berrikusteak edo egiaztapen, balioztapen edo ziurtagiri partzialetan onartu iznaak ez dio inolako eskubiderik emango, ezta erantzunkizunetik aske utziko ere.

Kontratistak berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratu honetan zehaztutako prestazioak partzialki bete ez baditu, administrazioak, kasu bakoitzeko egoerei erantzunez, kontratua amaitzea edo agiri honen I. eranskineko 30. Idatz-zatian kasu horietarako zehazten diren zehapenak ezartzea erabaki dezake.

Cláusula 46. Trabajos defectuosos o mal ejecutados.

Hasta tanto tenga lugar la recepción, el adjudicatario responderá de la correcta realización de lso servicios contratados y de los defectos que en ellos hubiera, sin que sea eximente ni dé derecho alguno la circunstancia de que lso representantes de la Administración los hayan examinado o reconocido durante su elaboración o aceptado en comprobaciones, valoraciones o certificaciones parciales.

Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido parcialmente la ejecuicón de las prestaciones definidas en el contrato, la Administración podrá optar, atendidas las circunstancias del caso, por su resolución o por la imposición de las penalidades que, para tales supuestos se determinen en el apartado 30 del Anexo I del presente pliego.

Hirugarren atala: Kontratua aldatzea eta etetea

Sección tercera. De la modificación y suspensión del contrato

47. klausula. Kontratua aldatzea.

Kontratu administratiboak interes publikoko arrazoiak daudenean baino ezin dira aldatu, SPKLren bigarren liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 3. idatz-zatiko 4. azpiatalean aurreikusitako kasuetan eta moduan. Horretarako, SPKLren 191. artikuluan araututako prozedura beteko da, SPKLren 207. artikuluan aurreikusitako berezitasunekin.

Kontratazio-organoek gauzatutako kontratu administratiboak indarrean dauden bitartean baino ezin dira aldatu, SPKLren 203. artikuluaren 2. idatz-zatian ezarritako kasuren bat ematen denean.

Kontratua administrazio-klausula berezien agirian aurreikusitako baldintzetan aldatuko da, agiri honen **I. eranskineko 27. idatz-zatian** horrela ezarrita badago eta SPKLren 204. artikuluan adierazitako moduan eta edukiarekin.

Cláusula 47. Modificación del contrato .

Los contratos administrativos sólo podrán ser modificados por razones de interés público en los casos y en la forma previstos en la Subsección 4ª de la Sección 3ª del Capítulo I del Título I del Libro Segundo de la LCSP, y de acuerdo con el procedimiento regulado en el artículo 191 LCSP, con las particularidades previstas en el artículo 207 LCSP.

Los contratos administrativos celebrados por los órganos de contratación sólo podrán modificarse durante su vigencia cuando se dé alguno de los supuestos establecidos en el apartado 2 del artículo 203 LCSP.

Procederá la modificación del contrato en los términos previstos en el pliego de cláusulas administrativas particulares, cuando así se haya establecido en el **apartado 27 del Anexo I** al presente pliego, en la forma y con el contenido señalado en el artículo 204 de la LCSP.

Agiri honen **I. eranskineko 27. idatz-zatian** ezarriko da aldaketa horiek kontratuaren prezioaren ehunekoari zenbatean eragin diezaioketen gehienez ere.

El porcentaje máximo del precio inicial del contrato al que puedan afectar las citadas modificaciones será el establecido en el **apartado 27 del Anexo I** al presente pliego.

Kontratistek nahitaez bete behar dituzte kontratazio-organoak adostutako aldaketak, SPKLren 206. artikuluan ezarritako baldintzetan. Aldaketa horiek SPKLren 153. artikuluan ezarritakoaren arabera formalizatu behar dira, eta lege horren 207. eta 63. artikuluetan xedatutakoaren arabera argitaratu.

Las modificaciones acordadas por el órgano de contratación serán obligatorias para los contratistas en los términos establecidos en el artículo 206 de la LCSP, debiendo formalizarse conforme a lo dispuesto en el artículo 153 de la LCSP y publicarse de acuerdo con lo establecido en los artículos 207 y 63 de la citada ley.

Bere izaerari dagokionez, jarraituko zaio SPKLren Bigarren Liburuko I. Tituluko I. Kapituluko 3. Ataleko 4. Azpiatalean xedatutakoari, SPKLren 191., 203. eta 242. artikuluetan xedatutakoari, eta erregelamenduz xedatutakoari ere bai.

En lo concerniente a su régimen se estará a lo dispuesto en la Subsección 4ª de la Sección 3ª del Capítulo I del Título I del Libro Segundo de la LCSP, y los artículos 191, 203 y 242 de la LCPS , así como a lo dispuesto reglamentariamente.

SPKLren 309. Artikuluan xedatutakoa betez, prezioa egikaritze-unitateen bidez zehazten den kasuetan, ez da aldaketatzat joko prestazioa zuzen burutu bitartean benetan egikaritutako unitateen kopurua aldatu izana kontratuan aurreikusitakoaren aldean, baldin eta administrazio-klausula berezien agirian horrela jasota badago. Aldaketa horiek kitapenean jasota gera daitezke, betiere kontratuaren prezioaren %10etik gorako gastua ez badute.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 309 LCSP, en los casos en que la determinación del precio se realice mediante unidades de ejecución, no tendrán la cosideración de modificaciones, siempre que así se haya establecido en el pliego de cláusulas administrativas particulares, la variación que durante la correcta ejecución de la prestación se produzca exclusivamente en el número de unidades realmente ejecutadas sobre las previstas en el contrato, las cuales podrán ser recogidas en la liquidación, siempre que no representen un incremento del gasto superior al 10 por ciento del precio del contrato.

.

48. klausula. Kontratua etetea.

Cláusula 48. Suspensión del contrato.

Interes publikoko arrazoiengatik, administrazioak kontratuaren egikaritzea etetea erabaki dezake. Era berean, SPKLren 198.5 artikuluan aipaturiko egoera emanez gero, kontratua eten egingo du. Kontratua eteteari dagokionez, SPKLren 208. artikulua eta HAKLAOren 103. artikuluan xedatutakoak bete beharko dira.

La Administración, por razones de interés público, podrá acordar la suspensión de la ejecución del contrato. Igualmente, procederá la suspensión del contrato si se diese la circunstancia señalada en el artículo 198.5 de la LCSP. A efectos de la suspensión del contrato se estará a lo dispuesto en el artículo 208 de la LCSP así como en el artículo 103 del RGLCAP.

SPKLren 208. artikuluarekin adostasunean, administrazioak kontratua etetea edo SPKLren 198.5 artikulua aplikatuz dagokiona erabakitzen badu, administrazioak kontratistari ordainduko dizkio hark jasan dituen kalte-galerak, agiri honen **I. eranskineko 28. idatz-zatian** jasotako arauei

De conformidad con el artículo 208 LCSP, si la Administración acordase la suspensión del contrato o aquella tuviere lugar por la aplicación de lo dispuesto en el artículo 198.5 LCSP, la Administración abonará al contratista los daños y perjuicios efectivamente sufridos por éste con

jarraikiz.

sujeción a las reglas establecidas en el **apartado 28 del Anexo I** al pliego.

Laugarren atala: Zehapenak

Sección cuarta: Penalidades

49. klausula. Zehapenak.

Cláusula 49. Penalidades.

Kontratista behartuta dago kontratua betetzera berau egiteko finkatuta dagoen epe barruan, baita, bere kasuan, zehaztu diren ondorengo egikaritzeen zatikako epeetan.

El contratista está obligado a cumplir el contrato dentro del plazo total fijado para la realización del mismo, así como de los plazos parciales señalados para su ejecución sucesiva.

Hornikuntzek atzerapenik jasango balute, beti ere kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla tarteko, eta honek, egikaritze epea zabalduko balitz, bere konpromisoak betetzeko borondatea edukiko balu, kontratazio organoak emango dio, gutxienez galdutako denboraren beste hainbeste, kontratistak gutxiago eskatzen ez badu SPKLren 195.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintzak eta tramiteak HAKLAOren 100. artikuluan ezarritakoa betez. Kontratuaren arduradunak txosten bat egingo du atzerapena kontratistaren egotzi ahal zaion edo ez azaltzen duena.

Si los servicios sufrieren un retraso en su ejecución, y siempre que el mismo no fuere imputable al contratista y éste ofreciera cumplir sus compromisos si se le amplía el plazo inicial de ejecución, el órgano de contratación se lo concederá, dándole un plazo que será, por lo menos, igual al tiempo perdido, a no ser que el contratista pidiese otro menor, de acuerdo con lo establecido en el artículo 195.2 LCSP, regulándose los requisitos y trámites conforme al artículo 100 del RGLCAP. El responsable del contrato emitirá un informe donde se determine si el retraso fue producido por motivos imputables al contratista.

SPKLren 29.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresariari egotzi dakiokeen atzerapena ematen bada, organo kontratatzaileak epea zabaldu dezake, baina SPKLren 19. eta ondorengo artikuluetan agertzen diren zehapenak alde batera utzi gabe.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 29.3 LCSP, cuando se produzca demora en la ejecución de la prestación por parte del empresario, el órgano de contratación podrá conceder una ampliación del plazo de ejecución, sin perjuicio de las penalidades que en su caso procedan, resultando aplicable lo previsto en los artículo 192 y siguientes LCSP.

Kontratistak berari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik kontratu honetan zehaztutako prestazioak partzialki bete ez baditu, **I. eranskineko 8. idatz-zatian** adierazten den bezala, administrazioak, kasu bakoitzeko egoerei erantzunez, kontratua amaitzea edo agiri honen **I. eranskineko 29. idatz-zatian** kasu horietarako zehazten diren zehapenak ezartzea erabaki dezake.

Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiese incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total o parcial, para lo que se estará al **apartado 8 del Anexo I** al presente pliego, la Administración podrá optar, atendidas las circunstancias del caso, por la resolución del contrato o por la imposición de penalidades que figuran en el **apartado 29 del Anexo I** al presente pliego.

Kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo ez-betetzeen ondorioz kontratua egikaritzeko haren kostu errealetik % 5 baino gehiago desbideratzen bada, BEZik gabe, organo kontratatzaileak kontratua bukatutzat eman edo epea luzatu dezake,

Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5 por 100 del precio del contrato, IVA excluido, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de

zehapen berriak ezarriz. Azken egoera honetan, organo kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen duen epe luzapena egin dezake.

nuevas penalidades. En este último supuesto, el órgano de contratación concederá la ampliación del plazo que estime necesaria para la terminación del contrato.

Era berean, Administrazioak eskumen bera izango du zatikako epeak ez-betetzean, hornidura egiteko finkatutako epe osoa beteko ez dela aurreikusten badu.

Asimismo, la Administración tendrá las mismas prerrogativas cuando la demora en el cumplimiento de los plazos parciales haga presumir razonablemente la imposibilidad del cumplimiento del plazo total.

Administrazioak, kontratistak ezarritako zatikako epeak ez betetzean, kontratua amaitzea edo agiri honen **I. eranskineko 29. idatz-zatian** kasu horietarako zehazten diren zehapenak ezartzea erabaki dezake.

La Administración, en caso de incumplimiento de los plazos parciales definidos en el contrato por parte del contratista, podrá optar por la resolución del contrato o por las penalidades que se determinan en el **apartado 29 del Anexo I** al presente pliego.

Zehapenetan agertzen ez diren kasuetan eta Administrazioari eragindako kalteak barne-hartzen ez dituenetan, epeak ez-betetzeagatik, kontratistari kalte-ordainak eskatuko zaizkio.

En los supuestos de incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso o de demora en la ejecución en que no esté prevista penalidad o en que estándolo la misma no cubriera los daños causados a la Administración, ésta se exigirá al contratista la indemnización por daños y perjuicios.

IV. KAPITULUA. Kontratua amaitzea.

CAPÍTULO IV. Extinción del contrato.

Lehenengo atala. Kontratua amaitzea

Sección primera. De la resolución del contrato

50. klausula. Kontratua amaitzea.

Cláusula 50. Resolución del contrato.

Kontratua amaitzeko arrazoiak dira SPKLren 211. eta 245. artikuluetan xedatutakoak eta plegu honen **I. Eranskineko 30. idatz-zatian** aurreikusitakoak.

Son causas de resolución del contrato las recogidas en los artículos 211, 245 de la LCSP así como las previstas en **el apartado 30 del Anexo I** al pliego.

SPKLren 211.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratua amaitzeko hainbat arrazoi daudenean, eta amaitze horrek hainbat ondorio ekonomiko ezberdin dakartzanean, lehenengo agertutakoa konpondu beharko da lehenago.

De conformidad con el artículo 211.2 LCSP, en los casos en que concurran diversas causas de resolución del contrato con diferentes efectos en cuanto a las consecuencias económicas de la extinción, deberá atenderse a la que haya aparecido con prioridad en el tiempo.

Kontratuaren amaitzea kontratazio-organoak erabakiko du SPKLren 212.1 artikuluaren arabera, eta legez ezarritako tramitazio-prozeduraren bidez.

La resolución del contrato se acordará por el órgano de contratación de conformidad con lo dispuesto en el artículo 212.1 LCSP mediante procedimiento tramitado en la forma reglamentariamente establecida.

Kontratua lizitatzailearen erruz amaitzen bada,

Cuando el contrato se resuelva por incumplimiento

bermea inkautatuko zaio eta, gainera, sortutako kalte eta galerengatik Administrazioa indemnizatu beharko du, baldin eta haiek inkautatutako bermeaz gaindikoak badira. Sortutako kalte eta galeren balorazioa kontratazio-organoak berak egingo du, arrazoizko irizpideekin, aurrez kontratistari entzunaldia emanda. Beste faktore batzuen artean, aurreikusitako inbertsioan sortu dezakeen atzerapena eta Administrazioari sortutako gastu gehigarriak baloratuko dira.

Amaitzearen arrazoiak aplikatu ahal izateko, SPKLren 212. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio eta bere eraginetarako, SPKLren 213. eta 246. artikuluetan xedatutakoari; hala badagokio, baita arauzko garapenari ere.

culpable del contratista le será incautada la garantía y deberá, además, indemnizar a la Administración los daños y perjuicios ocasionados en lo que excedan del importe de la garantía incautada. La determinación de los daños y perjuicios que deba indemnizar el contratista se llevará a cabo por el órgano de contratación en decisión motivada previa audiencia del mismo, atendiendo, entre otros factores, al retraso que implique para la inversión proyectada y a los mayores gastos que ocasione a la Administración.

Para la aplicación de las causas de resolución se estará a lo dispuesto en el artículo 212 de la LCSP y para sus efectos a lo dispuesto en los artículos 213 y 246 de la LCSP, así como en su caso, a lo dispuesto en el desarrollo reglamentario.

Bigarren atala. Bermealdia eta kitapena.

Sección segunda Del plazo de garantía y de la liquidación

51. klausula. Bermealdia eta kontratuaren kitapena.

Cláusula 51. Plazo de garantía y liquidación.

Bermealdia administrazioak obraren harrera egiten duen egunean bertan sartuko da indarrean, eta agiri honen **I. Eranskineko 31. idatz-zatian** jasoko da. Bermealdiaren epean, mantentze eta zaintza lanak kontratistaren pean egongo dira.

Epe horretan, behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluan adierazten diren eta aplikaziozkoak zaizkion kontzeptuak estaliko ditu.

El plazo de garantía comenzará a contar desde la fecha de la recepción y será el indicado en el **apartado 31 del Anexo I** al presente pliego. Los gastos de conservación y vigilancia durante el plazo de garantía serán a cargo del contratista.

Durante dicho plazo la garantía definitiva responderá de los conceptos señalados en el artículo 110 LCSP que resulten de aplicación.

Hirugarren atala. Administrazioaren eskumenak eta ahalmenak.

Sección tercera. Prerrogativas y facultades de la Administración y Recursos

52. klausula. Administrazioaren eskumenak eta ahalmenak.

Cláusula 52. Prerrogativas y facultades de la Administración.

Mugen barruan eta SPKLk arautzen dituen baldintza eta ondorioen barruan, kontratazio-organoak eskumena du administrazio-kontratuak berrikusteko, bere egikaritzeak sor ditzakeen zalantzak argitzeko, interes publikoagatik aldatzeko, kontratua egikaritzean kontratistari egotz dakizkiokeen kalteengatik berau inputatzeko, kontratuaren

Dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la LCSP, el órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del

egikaritzea amaitzeko eta horren ondorioak ezartzeko.

Era berean, kontratazio-organoak ahalmena du kontratistak, kontratua egikaritzen den bitartean, garatutako jarduerak ikuskatzeko, SPKLk kontratu mota bakoitzarentzako ezarritako mugak eta baldintzak betez. Ikuskatzeko ahalmen honek ez du inolaz ere kontratazio-organoa ahalbidetzen kontratistaren instalazio, bulego eta bestelako kokapenak ikuskatzeko; soilik, kokapen horiek eta beraien baldintza teknikoak erabakigarriak badira kontratuak eskaintzen dituen zerbitzuetarako, betiere aurretiaz justifikatuta badaude berariaz eta zehazki.

Aurretik zehaztutako eskumenei buruz akordioak hartzeko prozedurak izapidetuko dira SPKLren 191. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Kontratazio-organoak hartzen dituen akordioek bide administratiboari amaiera emango diote eta berehalakotasunez exekutatuko dira.

contrato, suspender la ejecución del mismo acordar su resolución y determinar los efectos de esta.

Igualmente, el órgano de contratación ostenta las facultades de inspección de las actividades desarrolladas por los contratistas durante la ejecución del contrato, en los términos y con los límites establecidos en la LCSP para cada tipo de contrato. En ningún caso dichas facultades de inspección podrán implicar un derecho general del órgano de contratación a inspeccionar las instalaciones, oficinas y demás emplazamientos en los que el contratista desarrolle sus actividades, salvo que tales emplazamientos y sus condiciones técnicas sean determinantes para el desarrollo de las prestaciones objeto del contrato, extremos que deberán quedar justificados de forma expresa y detallada en el expediente administrativo.

Los procedimientos para la adopción de acuerdos relativos a las prerrogativas establecidas anteriormente, se instruirán de conformidad con lo dispuesto en el artículo 191 LCSP.

Los acuerdos que adopte el órgano de contratación pondrán fin a la vía administrativa y serán inmediatamente ejecutivos.

Laugarren atala. Helegiteak.

53. klausula. Helegiteak.

SPKLren 44. artikuluan aurreikusitako kasuetan, aukerakoa izango da adminsitrazio-errekurtso berezia jartzea kontratazioaren alorrean, administrazioarekiko auziaren aurrteik, 15 egun balioduneko epean, SPKLren 50. artikuluan ezarritako baldintzetan, errekurtso hori ebazteko organo eskuduna EAEko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa da.

Errekurtso bereziaren bidez aurkatu daitezkeen jarduketen aurka ezin da jarri administrazio-errekurtso arruntik.

Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan eta

Sección cuarta. Recursos

Cláusula 53. Recursos

En los supuestos previstos en el artículo 44 de la LSCP, procederá con carácter potestativo la interposición del recurso administrativo especial en materia de contratación previo al contencioso-administrativo, en el plazo de 15 días hábiles, en los términos previstos en el artículo 50 de la LCSP. El órgano competente para conocer el recurso será el Organo Administrativo de Recursos Contractuales del País Vasco.

Contra las actuaciones susceptibles de ser impugnadas mediante recurso especial, no procederá la interposición de recursos administrativos ordinarios.

En caso de cualquier tipo de discrepancia entre lo

Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguan xedatutakoaren artean desadostasunik egonez gero, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan xedatutakoa nagusituko da. Administrazioari dagozkio kontratua interpretatzeko eta kontratua betetzeko orduan sor daitezkeen zalantzak argitzeko, herri interesa dela-eta kontratua aldatzeko, kontratua bertan behera uzteko erabaki hartzeko eta erabaki horren eraginak zehazteko eskkumenak; betiere, SPKLak eta Administrazio Plublikoko kontratuen Legearen Erregelamendu orokorrak ezarritako baldintzen eta eraginen barruan.

